



## IRUDITAN

### Ateak zabaldu ditu Izaskun Arrue Kulturguneak, azkenik

Bi urteko atzerapenarekin bada ere, bere irekiera eguna ospatu du Izaskun Arrue Kulturguneak. Erakunde publikoetako ordezkaritza zabalarekin, euskalgintzako eragileetako babesarekin eta herritarren jakin-min gosez atek ireki ditu, azkenik, Gasteiz Antzokiak. Eduarne Azkarate aktoreak gidatutako ekitaldian, Lukas Etxeberria Lazarraga Kultur Elkarteko lehendakariak nabarmendu du "euskal kulturak eta sortzaileek behar duten" gunea izango dela, "euskaldun zein euskaldunak ez diren horiei" irekita egongo dela. Argazkiak: ALEA. ■■■



Bidali zure argazkiak testu labur batekin: [erredakzio@alea.eus](mailto:erredakzio@alea.eus)